



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko otsailaren 8a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioa eraikitzeko lanari buruzko fiskalizazio txostena,
Comptos Ganberak egin [\(2. or.\)](#).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioa eraikitze lanari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko azaroaren 2an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioa eraikitze lanari buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2004ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioa eraikitze lanari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).**
 - I.1. Eskaera (2. or.).
 - I.2. Baluarte (2. or.).
- II. Helburua, norainokoa, metodologia eta mugak (3. or.).**
- III. Esparru juridikoari buruzko aipamen orokorra (4. or.).**
- IV. Ondorioak (5. or.).**
 - IV.1. Proiektuari buruz (5. or.).
 - IV.2. Kontratazioari buruz (5. or.).
 - IV.3. Baluartearen kostuari buruz (6. or.).
 - IV.4. Kontratu nagusien azterketa (7. or.).
 - IV.5. Beste kontratu edo hitzarmen batzuk (10. or.).
 - IV.6. Obren finantzaketa (11. or.).
 - IV.7. Baluarte Fundazioari buruz (12. or.).

Baluarteko zuzendari-kudeatzaileak aurkezturiko alegazioak (14. or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emandako erantzuna (15. or.).

I. SARRERA

I.1. ESKAERA

2003ko azaroaren 3an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Ezker Batua parlamentu-taldeak eskaturik, Nafarroako Comptos Ganberari eskatu zion fiskalizazio txosten bat egin zezan ondoko gaiari buruz: Nafarroako Gobernuak, "Sociedad Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, SA" enpresa publikoak eta Baluarte fundazioak Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioa eraiki eta abian jartze aldera eginiko lana, obraren amaierako kostuari dagokionez eta legezketasun, eraginkortasun eta efizientzia alderdiei dagokienez ere."

I.2. BALUARTEA

1997ko maiatzean, Nafarroako Gobernuak Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariari eskatu zion behar ziren jarduketak eta hartu-emanak abiaraz zitzaizkien biltzar jauregi eta kultur auditorio bat (Baluarte) eraikitze proiektua zehazteko.

1998ko otsailean Baluarte eraikitze ideien lehiaketa publiko baterako deialdia egin zen. Deialdi horren arabera, irabazlea proiektua egiteko eta geroago obra zuzentzeko kontratatuko zen.

1999ko apirilean, Nafarroako Gobernuak baimena eman zion Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariari proiektua eta obraren zuzendaritza kontrata zitzaizkien; kontratua urte bereko ekainean sinatu zen.

1999ko maiatzaren 24an "Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, SA" sozietate publikoa eratu zen; kapitala 61.000 eurokoa zen, Nafarroako Gobernuak osoki harpidetua eta despoltsatua; sozietate publikoaren xedea zen "behar diren jar-

duketa guztiak egitea Nafarroako Biltzar Jauregia eta Kultur Auditorioa eraiki eta ekipatzeko”

2000n, “Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, SA” izena hartu zuen, eta bere xede soziala zabaldu zuen: “behar diren jarduketa guztiak egitea eraikitako instalazioak ahal den hobekien erabiltzea eta ustiatzea bermatzeko, Nafarroako Gobernuak adierazitako oharrei jarraituz”

2001eko abenduaren 17an, Nafarroako Gobernuak xede soziala aldatzea erabaki zuen; hartan, eraikuntzarako eta ustiaketarako aurretiko jarduketaz gainera, sozietatearen esku uzten dira jauregiaren kudeaketa eta ustiaketa (behin eraikuntza lana bukatu ondoren), alokairuari, zerbitzu osagarriari eta mantentzeari dagokienez, salbu eta “ekitaldi berriak”, zeinak fundazio baten eskumena izanen baitira. Nafarroako Gobernuaren erabaki hori ez zen eskritura publikoan jaso.

Baluarte Sozietatea eratuta zegoenez, proiektuaren egile zen taldearekin zuzendaritza fakultati-boa kontratatzea eta obrarako eta ekipamendurako kontratu guztiak sozietate publiko horrek egin zituen.

Lehiaketa irabazi zutenek idatzitako proiektua Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren 2000ko ekainaren 15eko foru aginduaz onetsi zen.

Nafarroako Gobernuak zenbait kapital-gehikuntza egin ditu; haien bitartez finantzatu du obra sozietateak.

Iruñeko Udalak doan laga zion zorua Nafarroako Gobernuari.

Baluarte Sozietateak enpresa batekin kontratatu zituen Baluarte eraikitzeke eta ekipatzeko proiektuaren kudeaketarako laguntza teknikoko zerbitzuak.

1999ko bukaeran, zundaketa arkeologikoak egin ziren; 2000ko lehen hiletan, berriz, indusketa arkeologikoak egin ziren. Horietan egiaztatu zen San Antonen bastioia nahiko ongi kontserbaturik zegoela, eta Kultura Departamentuak hura mantentzea erabaki zuen; hori dela eta, eraikuntza proiektua egoera berriari egokitu behar izan zitzaion.

2000ko ekainean lehen harria jarri zen; eraikina 2003ko urrian inauguratu zen.

2002ko abenduaren 30ean, Nafarroako Gobernuak Baluarte Fundazioa eratu zuen, 30.000 euroko hasierako kopuru batekin. Haren helburua da “nagusiki “Baluarte” jauregian garatu beharreko kultur jarduerak sustatzea, Nafarroako Foru Komu-

nitateko motore eta kultur erreferentzia bihurtu dadin eta haren irudia kanpoan zabaldu dezan”

Baluarteko patronatua “12 kidek osatzen dute. Horietako zazpi Nafarroako Gobernuak libreki izendatuko ditu, eta Fundazioaren lehen patronatua izanen dira; gainerako bostak fundazioari patronatuak zehaztuko dituen termino ekonomikoetan laguntza ematen dioten pertsona fisiko edo juridikoek proposatuta izendatuko dira, kasu bada”

2003ko apirilean, Nafarroako Tributu Ogasuneko zuzendari kudeatzailearen ebazpenaz, deklaratu zen “aplikatzekoa izanen zitzaiola Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen 10/1996 Foru Legeko tributu araubidea”

2003ko irailean, fundazioak eta sozietateak zerbitzu kontratu bat sinatu zuten. Horrekin lortu nahi da sozietateak kudeatu eta fundazioari fakturatzeko fundazioak erabakitako kultur programazioa; programazio horren finantzaketa hiru zati berdinetan banatu nahi da: txarteldegiko dirusarrerak, fundazioaren laguntzaile diren entitateen ekarpenak eta Nafarroako Gobernuaren ekarpena.

Sozietateak, sortu zenetik, eta fundazioak beren urteko kontuak aurkezten dituzte, horien auditoria kanpoko enpresa batek egin ondoren. Sozietatearen eta fundazioaren kontuen auditoriek oniritzia dute.

Sozietateak honako langileak zituen 2003ko abenduan:

- Zuzendari kudeatzailea
- Idazkaria
- Administrazioeko zuzendaria
- Komunikazioko zuzendaria
- Programazioko zuzendaria
- Zuzendari teknikoa
- Merkataritzako zuzendaria
- Mantentze lanetako zuzendaria
- Eszenatokiko bi teknikari
- Ikus-entzunezkoen teknikaria
- Eragiketen burua
- Aretoko burua

II. HELBURUA, NORAINOKOA, METODOLOGIA ETA MUGAK

Txosten honen helburua da Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eginiko eskariari erantzutea; zehazki, obraren amaierako kostua

aztertzea eta legezkotasuna, eraginkortasuna eta efizientzia ikertzea.

Lan hau egiteko, "Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra SA" sozietate publikoaren eta Nafarroako Gobernuaren dokumentazioa aztertu da, nagusiki 1997tik –urte hartan eskatu baitzuen Nafarroako Gobernuak pausoak ematen hasteko– gaur artekoa.

Halaber, sozietateari kanpoko enpresa batek urtero eginiko auditoriak erabili ditugu –urtero gehitzen dira Nafarroako Kontu Orokorretan, eranskin gisa–, bai eta fundazioaren 2003ko ekitaldiko auditoria ere.

Zenbait bilera egin dira Nafarroako Gobernuko teknikariek eta Baluarte Sozietateko arduradunekin.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta arauak jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz egin dugu lana.

Zenbait alderdi tekniko aztertu gabe utzi ditugu: esate baterako, proiektuen kalitatea eta prezioak, aldaketen egokitasuna eta materialen kalitatea.

Landa-azterketa martxotik ekainera egin du bi auditoretza-teknikarik eta auditore batek osaturiko lantalde batek, eta Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan etengabeko laguntza izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuko eta "Baluarte-Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, SA" sozietateko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

III. ESPARRU JURIDIKOARI BURUZKO AIPAMEN OROKORRA

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuak buruzko Foru Legeak honakoa ezarri zuen 1.4 artikuluan: "Administrazio batek zuzenean zein zeharka merkatal sozietate bateko kapitalaren gehien-goan parte hartzen baldin badu, merkatal sozietate hori kontratuak sinatzean publikotasun, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioei egokitu beharko zaie, egin beharreko eragiketaren izaera printzipio horiekin bateraezina denean izan ezik".

Bai Auzitegi Gorenak (2001eko ekainaren 4ko epaia), bai Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholku-emaileak (24/95 txostena) adierazi dute printzipio horiek aplikatzeko moduan ez dagoela zertan jarraitu legeko arau eta prozedura zehatzei; izan ere, enpresa bera izanen da printzipio horiei

eraginkortasuna emateko modu egokiena erabaki beharko duena.

Aurreko horretatik guztitik honako ondorioa atera behar dugu: kontratuei buruzko foru legearen arabera, enpresa publikoek soilik publizitate, lehiakortasun, gardentasun eta objektibotasun printzipioak bete behar dituzte.

Europako zuzenbidea zuzentarau batzuen bitartez aplikatzen zaie kide diren estatuei; zuzentarau horiek kide diren estatuen barne antolamendurik ez duten txertatu behar dira.

Txertatze horrek berekin ekarri du Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegian (EEJA) errekurtsioak aurkeztea; errekurtsio horiek ebatziz jurisprudentzia sortzen joan da.

Hartara, hemen ardura digun arloan, kontratuen adjudikazioarenean alegia, EEJAren 2003ko maiatzaren 15eko epaiak ezarri zuen Espainiako Erresumak arautegi hori aplikatu behar diela erabat kapital publikokoak diren edo nagusiki kapital publikoa duten merkataritza sozietateei.

Hartara, hauxe dio: "aurreko gogoetak kontuan hartuta, ezin da "zuzenbide publikoko organismoaren" kontzeptua interpretatu esanez kide diren estatuek kontrol publikoko merkataritza sozietateak zuzentzarauen aplikazio eremutik kanpo utzi ditzaketela".

Eta, estatuko legediari dagokionez, zeinak sozietate publikoak beren kontratu-jarduera publizitate eta lehiakortasun printzipioei egokitzera besterik behartzen ez baitzuten, honako ondorioetara iristen da: "... aztergai dugun kasuari aplikatzekoa zaion araudi espainiarrak ez du zuzen biltzen 'entitate adjudikazio-emailearen' kontzeptua..."

Horrenbestez, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, kontratazioaren arloko estatuko legedia aldatu egin da EEJAren aipatu epaiari egokitzeko.

Foru erkidegoaren esparruan, kontratuei buruzko foru legea ez da aldatu, baina bai arautu ziren, 150/2003 Foru Dekretuaren bitartez, sozietate publikoek administrazioarekin eduki beharreko harremanak, hain zuzen ere mandatuaren figura bitartez.

Nafarroako Gobernuari gomendatzen diogu, EEJAren 2003ko maiatzaren 15eko epaia eta estatuko arauen geroko aldaketa direla eta, azter dezan kontratuei buruzko egungo foru araudia Europako zuzentzarauaren arabera den, eta, kasua bada, behar diren lege-neurriak har ditzan.

IV. ONDORIOAK

Ondoren ematen ditugu Nafarroako Comptos Ganberak, azterketa egin ondoren, atera dituen ondorioak.

Kapital guztia Nafarroako Gobernuarena den sozietate publiko bat sortu denez, obrak zenbait xehetasun dauzka administrazioak zuzenean kontraturiko obren aldean; hori dela eta, batzuetan iruzkin batzuk egiten dira ondorioak aurkeztu baino lehen.

IV.1. PROIEKTUARI BURUZ

Ideien lehiaketarako beharizan batzuk eta erreferentziako prezio batzuk finkatzen dira, egin beharreko obra motaren arabera (eraikina, gara-jea...).

Ideien lehiaketa irabazi zuen proposamenak 51.790 m²ko eraikina eta 12.900 m²ko plaza aurreikusten ditu, eta 47.263.171 euroko aurrekontua du, BEZa barne, kontrata bidez exekutatuta. Kopuru horiei ordainsarietak, aseguruak eta abar gehitu behar zaizkie.

Oinarrizko proiektuak, 1999ko abenduaren 9ko Foru Aginduaz onetsitakoak, ez du diru-zenbatekorik adierazten, eta ezin izan dugu ere egiaztatu; halere, dagoen dokumentaziotik 46.313.993 euroko kontrata bidezko exekuzioa eta 56.750 m²ko azalera zituela ondoriozta daiteke.

Oinarrizko proiektuaren berrikuspenak, kanpoko aholkularitza-enpresa baten laguntzarekin, estimazio bat dakar, hautaturiko ekipamenduaren arabera, 60.883.562 eta 67.458.427 euro bitarte aurreikusten dituen. Zenbateko horretan ez da sartzen San Antonen bastioia ondoren integratzea.

Baluarte Sozietateak eta arkitektoen taldeak San Antonen bastioia integratzeko obran sartzeko sinaturiko kontratuan, 61.189.042 euro ezarri ziren kontrata bidezko exekuziorako.

Gainerako gastuak (BEZa, lansariak, aseguruak, laguntza...) kontuan hartuz gero, kostua 78.738.560 eta 86.365.439 euro bitartekoa da.

Obren lizentzia eskatzeko, eraikinerako 63.137 m² eta plazarako 14.987 m² aurreikusten zituen proiektu bat erabili zen; kontrata bidezko exekuzioaren kostua 54.979.238 eurokoa zen, obra zibilekotzat jotzen ez diren kontusailak ez baitira sartzen.

Kontrataziorako erabilitako aurrekontuek 71.117.215 euro egiten dute; BEZarekin 82.495.973 euro dira.

Nafarroako Gobernuak 2000ko ekainaren 15ean onetsitako proiektuak ez du zenbatekorik adierazten.

Garai hartan Industria kontseilaria eta Baluarte Sozietateko lehendakaria zenak, sozietateko kudeatzailearekin batera, proiektuari buruzko informazioa aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuko Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean, 2000ko ekainaren 9ko Bilkura Egunkarian, 6. zk. daramanean, ikus daitekeen bezala.

Bai parlamentu-agerraldi horretan, bai hedabideei helarazitako informazioan, 75.000.000 eta 78.200.000 euro bitarteko kostua aipatu zen, eta obrak 2003ko ekainetik urrira bitarte bukatuko zirela. Sozietatearen barneko dokumentu batzuetan kopuru berak aipatzen dira, baina oraingoan esaten da kostu horretan ez dela BEZa sartzen.

Horrenbestez, ezin da proiektu zehatz bati buruz hitz egin obra aztertzerakoan, zeren eta proiektu bat baino gehiago baitago; bestalde, ez Nafarroako Gobernuak, ez sozietateak ez dute berariaz onetsi inbertitu beharreko kopurua. Hala eta guztiz ere, enpresako arduradunek helburu gisa onartu zuten 78.200.000 euroko kostua duen obra egitea (BEZik gabe) eta 2003ko urrirako bukatuta izatea. Obra loteka exekutatu zenez, lizitaziorako proiektu zehatzak kontratazioa baino lehenago alda zitezkeen, aurrekoen exekuzioaren arabera. Kontuan hartu behar da obrak hiru urte baino gehiago iraun duela.

IV.2. KONTRATAZIOARI BURUZ

Nafarroako Gobernuak jarduketak hasi ondoren, obraren kudeaketa enpresa publiko batek egin zuen; hori dela eta, III. epigrafean aztertu dugu aplikatzekoa den lege-esparrua.

Enpresa publiko honek hartu zuen lehen neurria izan zen ingeniari-tza enpresa bat kontratatzea jabeen laguntza emateko, eta jo zuen egokiagoa izanen zela obra faseka edo loteka egitea. Hartara, ez zen adjudikazio bakarra egin: izan ere, obrarako eta haren ekipamendurako hogeitaz adjudikazio ezberdin baino gehiago egin dira.

Enpresak irizpide propioak erabili ditu adjudikazioak egiteko; funtsean, honako eskema betetzen dute:

- Enpresa batzuei deialdiaren berri eman eta lehiaketari buruzko iragarki bat jarri egunkarietan.
- Eskaintzak jaso ondoren, enpresa aholkulariak aztertzen ditu eta behar den txostena ematen du.

- Emaizak ikusita, proposamen onenak egingakoekin "negoziatu" egiten da, aurkeztutako proposamenetan eta jabeentzako bermeetan (abalak, ordaintzeko moduak...) hobekuntzak lortzeko.

- Proposamen berriekin, behin betiko adjudikazio-hartzailea nor den erabakitzen da. Sozietatearen Administrazio Kontseiluak erabakiak berresten ditu, kasu guztietan.

- Adjudikazioa erabakitzeko behin betiko irizpideak, batzuetan, ez datoz bat pleguetan sartutakoekin, izangaiekin eginiko bilkuretan eta proposamenetan hobekuntzak lortzeko negoziazioan bildutako informazioen ondorioz.

- Enpresako arduradunek epeari eta prezioari dagokienez onartutako helburuek lehentasuna izan dute sinatutako kontratu ezberdinen epe partzialen gainetik; hori Baluarte Sozietate publikoaren jarduketaren funtsezko ardatzetako bat izan da.

Horrenbestez, obra sozietate publiko batek egin izateak bidea eman du adjudikazio prozedura jakin bat erabiltzeko, hain zuzen ere publizitate eta lehiakortasun irizpideak bete, negoziazioa erabili eta hartutako erabakia justifikatzen duena. Loteko adjudikazioak bidea ematen badu ere enpresa

diferenteekin lan egiteko, ikusten da lote nagusietan adjudikazio-hartzailea bera dela. Hori lotuta dago eginiko balorazio batekin, lanetan behar den koordinazioari eta lanetako batean ari denak lan haien gainean daukan ezagupenari buruzkoa.

IV.3. BALUARTEAREN KOSTUARI BURUZ

Ondoren Baluarte eraikitze prozesuan esku hartu zutenei (Nafarroako Gobernua eta Baluarte Sozietatea) guztira fakturatutako kopuruak biltzen dituen taula bat aurkezten dugu.

Taulan aseguru dezenala eta sozietateak erai-kineko jarduerak hasi bitarte izan dituen gastuak sartu ditugu. Halaber, Nafarroako Gobernuak zuzenean eta sozietateak egin dituzten ordainketak bereizi ditugu.

"Lurra eskuratzea" kontzeptua ere sartu dugu, nahiz eta Iruñeko Udalak lagatakoa izan; horren xede bakarra da kontuan izatea kontzeptu horretan ez dela inongo kosturik izan.

Azkenik, balio erantsiaren gaineko zerga hartu behar da kontuan, nahiz eta sozietatearen kasuan hura itzultzea lortzen den, amaierako kontsumitzailea ez delako.

Eurotan fakturatua

Kontzeptua	Guztira	Nafarroako Gobernua	Baluarte Sozietatea	BEZa	Guztira + BEZa
Lehiaketa	203.684,87	203.684,87		32.589,58	236.274,45
Proiektuaren lansariak eta zuzendaritza	2.443.513,29	1.135.846,09	1.307.667,20	390.962,13	2.834.475,42
Laguntza teknikoa	2.024.499,90		2.024.499,90	323.919,98	2.348.419,88
Aseguruak	672.568,30		672.568,30	14.562,33	687.130,63
Sozietatearen gastuak, eraikuntza	2.404.493,13		2.404.493,13	194.847,22	2.599.340,35
Laguntza proiekt. eta soziet. gastuak	7.748.759,49	1.339.530,96	6.409.228,53	956.881,24	8.705.640,73
Zorua erostea	0	0	0	0	0
Orubea	0	0	0	0	0
Indusketa arkeologikoa eta harria	2.697.495,29		2.697.495,29	431.599,25	3.129.094,54
Egitura	15.099.077,70		15.099.077,70	2.415.852,43	17.514.930,13
Kanpoko itxiturak eta urbanizazioa	12.824.904,72		12.824.904,72	2.051.984,76	14.876.889,48
Barneko itxiturak eta instalazioak	29.297.863,58		29.297.863,58	4.687.658,17	33.985.521,75
Ekipamendua	10.808.064,54		10.808.064,54	1.729.218,33	12.537.354,87
Obrak	70.727.405,83		70.727.405,83	11.316.384,93	82.043.790,76
Sozietatearen gastuak, abian jartzea	1.203.144,15		1.203.144,15	142.290,58	1.345.434,73
Bestelakoak	1.203.144,15		1.203.144,15	142.290,58	1.345.434,73
GUZTIRA	79.679.309,47	1.339.530,96	78.339.778,51	12.415.556,75	92.094.866,22
GUZTIRA, pezetatan	13.527.521.585	222.879.193	13.034.642.387	2.065.774.825	15.323.296.411

Ikus daitekeen bezala, guztizko kostua, sozietateak abian jartzeko izandako gastuak barne, 79.679.309,47 eurokoa da; BEZa ere kontuan hartuz gero, 92.094.866,22 eurokoa izan da. Proiektuaren diru zenbatekoa berariaz onetsi ezenez, sozietateko arduradunek publikoki onartutako kopuruarekin -78.200.000 euro (BEZik gabe)-baizik ezin dugu alderatu. Horrek ehuneko biko baina desbideraketa txikiagoa adierazten du.

Logikoa denez, tamaina horretako obra batean, abian jartzearen lehen urteetan egin beharreko gastu batzuk daude, funtzionamenduak berak eskatzen dituen hobekuntzen ondoriozko gastuak hain zuzen. Hartara, esate baterako, plazako urba-

nizazioaren birmoldaketa iragarri da, herritarrek egindako kexen ondorioz.

Hala eta guztiz ere, gure ustez inbertsio horiek dagozkien ekitaldi ekonomikoetan hartu behar dira aintzat.

Hurrengo epigrafean, kopuru horien exekuzioa kontratu edo kontzeptuen arabera bereziki emanen dugu.

IV.4. KONTRATU NAGUSIEN AZTERKETA

Aurreko epigrafean ikusitako kopurua ondoko kontratuetatik heldu da:

Zenbatekoak (eurotan)

	Ziurtatutako kopurua	BEZarekin
Ideien lehiaketa	203.684,87	236.274,45
Proiektua	1.135.846,09	1.317.581,47
Bastioia integratzeko proiektua	85.698,32	99.410,05
Zuzendaritza fakultatiboa	1.188.501,44	1.378.661,67
Obrako zuzendaritza fakultatiboaren etxetxoa	33.467,44	38.822,23
Proiektua eta zuzendaritza fakultatiboa	2.647.198,16	3.070.749,86
Laguntza teknikorako ingeniariatza	2.024.499,90	2.348.419,88
Laguntza teknikorako ingeniariatza	2.024.499,90	2.348.419,88
Erantzukizun zibileko + eraikuntzako + administrarien erantz. zib. aseguruak	210.669,00	210.669,00
Aseguru dozenala eta gainbegiratze teknikoa	461.899,30	476.461,63
Aseguruak	672.568,30	687.130,63
Ibilgetua ezartzea eta harekin lan egitea 2003-10-31 arte	2.293.282,13	2.470.335,59
Ibilgetu materiala 2003-10-31 arte	111.211,00	129.004,76
Sozietatearen gastuak eraikuntzak iraun bitartean	2.404.493,13	2.599.340,35
PROIEKTUA, GUZTIRA; LAGUNTZA ETA SOZIJETATE GASTUAK	7.748.759,48	8.705.640,72
Indusketa arkeologikoa	472.618,65	548.237,63
Indusketa arkeologikoaren jarraipena	45.595,16	52.890,39
Harriaren indusketa	2.155.381,59	2.500.242,65
Zinpeko zaindaria	23.899,88	27.723,86
Indusketa arkeologikoa eta harria	2.697.495,29	3.129.094,53
Egitura	15.019.627,04	17.422.767,37
Hargintza	79.450,66	92.162,77
Egitura	15.099.077,70	17.514.930,14
Kanpoko itxiturak eta urbanizazioa	10.282.622,79	11.927.842,43
Itxiturak: Amaierako aldatetako	2.486.301,92	2.884.110,23
Arrapalako galiboa aldatzea	45.703,00	53.015,48
Hustuketa ateak zabaltea	7.873,00	9.132,68
General Chinchilla kaleko fatxada garbitzea	2.404,00	2.788,64
Kanpoko itxiturak eta urbanizazioa	12.824.904,72	14.876.889,47
Barneko itxiturak eta instalazioak	29.231.075,29	33.908.047,33
Beira-probak	1.350,00	1.566,00
Hartune eskubideak	65.438,29	75.908,41
Barneko itxiturak eta instalazioak	29.297.863,58	33.985.521,75
Eszenatokiko makineria	4.764.206,77	5.526.479,86
Argiteria eta audio sareak	1.629.724,98	1.890.480,98
Ikus-entzunezko ekipamendua	1.329.868,71	1.542.647,70
Ahotsaren eta datuen elektronikak	290.263,87	336.706,09
Kableatze egituratuaren ziurtagiria	7.092,60	8.227,41
Eserlekuak	965.179,50	1.119.608,22
Sukaldeak prestatu eta ekipatzea	769.462,27	892.576,23
Ekipamendua eta altzariak	553.075,01	641.567,01
Komunak eta aldagelak	158.693,17	184.084,08
Ticketing	30.050,61	34.858,70
Seinaleak	55.448,45	64.320,20
Isats-pianoa eta beste bat –babesak barne–	109.005,17	126.446,00
Metalgintza. Jantzizaindegiko esekigailuak	11.350,00	13.166,00
Gortinak	15.430,46	17.899,34

	Ziurtatutako kopurua	BEZarekin
Ordenagailuak	18.030,00	20.914,80
“BALUARTE” errotulua	93.500,00	108.460,00
Banderak eta mastak	7.682,97	8.912,24
Ekipamendua	10.808.064,54	12.537.354,87
ERAIKUNTZA LANAK ETA EKIPAMENDUA, GUZTIRA	70.727.405,82	82.043.790,76
Kudeaketa abian jartzeko gastuak, 2003-10-31 arte	1.203.144,15	1.345.434,73
Kudeaketa abian jartzeko gastuak, 2003-10-31 arte	1.203.144,15	1.345.434,73
GUZTIRA	79.679.309,46	92.094.866,21

Espedienteen multzo horretatik, ondoko taula aurkeztu behar dugu, datu garrantzitsu nagusiak ematen dituena:

(zenbatekoak, eurotan)

	Arkeologia	Indusketa	Zimendatzea	Instalazioetako barneko itxiturak	Urbanizazioko kanpoko itxiturak	Makineria	Eszenatokiko argiteria eta sareak	Ikus- entzunezko ekipoak
Adm. Konts. erabakia	1999-12-29	2000-03-17	2000-08-09	2001.07.20	2002.03.11	2002.05.24	2003.01.16	2003.03.31
Kontratuaren data	2000.01.03	2000.03.20	2000.08.16	2001.07.30	2002.03.15	2002.06.03	2002.01.28	2003.04.28
Proiektuaren prezioa		2.979.005	13.141.353	30.081.306	8.649.897		1.586.295	1.451.520
Berrikusitako prezioa		2.977.623	13.437.006	26.346.911	8.221.704			
Lizitazio prezioa	499.559	2.824.757	12.122.414	25.152.357	6.911.639	4.808.097	1.635.308	
Epea (hilak)	2,5	5,5	14	18	12	12	5	3
Zuinketa		2000.03.21	2000.09.18	2001.09.18	2002.04.10	2002.08.26	2003.01.30	Ez da aplikatzekoa
Behin-behineko hartzea	2000.03.30	2000.10.02	2002.12.31	2004.05.14	2004.05.14	2004.08.17	2004.02.05	2004.02.05
Behin betiko hartzea	2000.09.30	2001.06.23	2004.07.24	D/G	D/G	D/G	D/G	
Adjudikazioa	476.794	2.247.434	12.896.525	26.790.583	8.908.726	4.403.178 ⁽¹⁾	1.473.895	1.258.972
Aldaketak +		243.113						
Aldaketak -		289.290						
Adjudikazioko atal honetan, guztira		2.201.257						
Likidazioa	472.619	2.155.382	15.019.626	30.845.067	9.652.298	4.764.206	1.629.725	1.329.868

(1) Hasierakoa 4.586.323 eurokoa da.

Kontratu hauek direla eta, hauxe esan behar dugu:

- Indusketa arkeologikoa.

45.595 euro egiten duten ordainketak egin zitzaizkion jarraipen arkeologikoaz arduratu zen taldeari.

- Indusketak.

Indusketaren espedientean 23.899 euroko ordainketak daude, zaintzaren kontzeptuan.

Exekuzioaren beharrezanen ondorioz gertatutako aldaketek 243.113 eurotan igoarazi dute aurreikusitako aurrekontua; aldi berean, hurrengo kontratura aldatu dira obra-unitate batzuk, 289.113 euro egiten dutenak.

- Zimendatzea.

Aurkeztutako proposamen guztiek lizitazio prezioa gaintu zuten.

Zimendatze obran, exekuzioaren aldaketa ondokoaren ondorioz gertatzen da:

	Zenbatekoa (eurotan)
Aurreko kontratutik aldaturiko obra	289.113
San Antonen bastioia berreraikitze obra berriak	644.257
Nafarroako Kutxako soto-garajeko obra berriak	183.577
Armadako etorbideko erreiko obra berriak	542.706
Guztira	1.371.040

Gainerakoa obrako exekuzioko kontusailetan bi norabideetan eginiko aldaketa multzoaren emaitza da.

Exekuzioan izaniko atzerapenek lehenengo luzapen bat eta geroago beste erabaki bat hartzea eragin zuten; erabaki horren arabera, jabeek eten eginen dute kasuan kasuko zigorrak exijitzeko eskubideen baliatzea, baldin eta adjudikazio-hartzaileak itxituretako kontratuen epeak betetzen baditu.

- Barneko eta kanpoko itxiturak.

Barneko eta kanpoko itxituren obrak batera hartu behar dira.

Barneko itxituren kasuan, adjudikaziotik likidaziora ehuneko 15eko desbideratzea dago; kanpoko itxituren kasuan, berriz, desbideratzea ehuneko 8koa da. Bi kasuetan, igoera horiek aldaketen multzo nabarmen baten efektu garbiari zor zaizkio.

2003ko uztailaren 31n, erreklamazio bat aurkeztu zen, "Nafarroako Auditorioko obretako adjudikazio-hartzaileak nozitu behar izan dituen desoreka ekonomikoen justifikazio eta balorazio" gisa aurkeztua; 5.387.177 euroko kopurua zuen, eta azaroan 6.018.329 euroraino igo zen.

Erreklamazioa aztertutik, Baluarteko zuzendaritzaren ustez justifikaturik dago 1.503.245 euro ordaintzea; horrenbestez, itxituren obren guztizko likidazioak 42.000.609 euro egiten du. Zenbateko horrekin behin betiko akordio bat lortu zen, eta enpresa adjudikazio-hartzaileak konpromisoa hartu du exekuzio horrengatik inongo erreklamaziorik ez aurkezteko.

122.000 euroko diferentzia, epigrafe honetako lehen taulan biltzen dugun 42.122.767 euroko kopurura artekoa, espedienteetan sartu ez diren gastu txiki batzuei zor zaie; esate baterako, hartune eskubideak, beira-probak eta abar.

- Eszenatokiko makineria.

Sozietateak ez zuen onartu arkitektoak enkargatutako proiektua. Hori dela eta, erabaki zen erosketa enkarguan proiektua bera ere sartzea.

Hori dela eta, 4.586.323 euroko lehen adjudikazio bat badago ere, benetako adjudikazioak, proiektua aurkeztuta, 4.403.178 euro egiten du.

Hasieran, proiektatu eta hornitu beharreko kontusailtzat jo ziren karga-jasogailua eta kamioi-jasogailua; geroago, ordea, jakinarazi zen haien itxituren lotean sarturik zeudela.

Kopuruen artean, 219.992 euro sartzen dira, obrak behin betiko hartzean (2005eko abuztuan) ordaindu behar direnak.

- Eszenatokiko argiteria.

Eszenatokiko argiteriari eta ikus-entzunezkoen sareei buruzko espedienteak aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) bati esleitu zitzaion; izan ere, bi eskaintza berdin izan ziren, eta haien artean eszenatokiko makineriako proiektuan lanean ari zen enpresa batek parte hartzen zuen ABEE bat hautatu zen.

Behin-behineko hartzea zortzi hileko atzerapenarekin egin zen, eta exekutatzeko zeuden gaien eranskin batekin. Kostuak ehuneko 10,5eko igoera izan zuen, aparteko kontusail batzuk prezio kontrajarrien prozedura erabiliz onestearen ondorioz.

- Ikus-entzunezko ekipoak.

Ikus-entzunezko ekipoei buruz, esan behar dugu eskaintza berdin batzuk aurkeztu zirela, eta erabaki zela adjudikazioa egitea ekipoak mantentzeko eskaintza onena aurkezten zuenaren alde; irizpide hori ez zegoen aurreikusirik hasierako kontratuan.

Adjudikazioaren gaineko igoera (ehuneko 5,6) aldibereko itzulpen sistema aldatu izanari zor zaio.

Amaierako likidazioa eta behin-behineko hartzea egun berekoak dira, sei hileko atzerapenarekin, eta egiteko geldituriko gaien zerrenda batekin egin ziren.

IV.5. BESTE KONTRATU EDO HITZARMEN BATZUK

IV.5.1. Orubea

1999ko abenduaren 27an, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen, Nafarroako Biltzar Jaurerri eta Auditorioa eraikitze, lurrazpiko aparkaleku bat egiteko eta plaza urbanizatzeko. Geroago, 2001ean, aldaketa batzuk egin ziren, sarreretan, irteeretan eta zenbait zortasunetan.

Hona hitzarmen horren laburpena:

- Udalak orubea, zamarik gabe, Nafarroako Gobernuari laga dio.

- Behin obrak hartu ondoren, Nafarroako Gobernuak jarduketaren ondoriozko plazaren kanpoko urbanizazioa entregatuko dio Udalari.

- Udalak eskubidea izanen du Baluarteko instalazioak hilean bi egunez doan erabiltzeko, eta beste bi egunez ohiko prezioaren erdia ordainduta.

- Baluarte Sozietateak Iruñeko Udalarari eragiketa-emaizten ehuneko 25 ordainduko dio hilero.

Laburbilduz, esan dezakegu orubearen emateak kuantifikatzen nekeza den kontraprestazio geroratu bat duela: alde batetik Baluarte erabiltzeko eskubideak eta bestetik aparkalekuaren eragiketa-emaizten ehuneko jakin baten kobraketa.

IV.5.2. Obra proiektua eta zuzendaritza eta Sozietatearentzako laguntza teknikoa

Proiektuaren erredakzioa eta obra zuzendaritza ideien lehiaketa irabazita zutenei adjudikatu zitzaizkien; kontratuak prezio finko batekin sinatu ziren.

Kontratuak San Antonen bastioia integratzearen ondorioz aldatu ziren, baluarte hori obretan ari ziren bitartean azaldu baitzen.

Jabeari laguntza teknikoa emateko kontratua adjudikatu zen amaierako eskaintzak, beren dedikazio eta prezioei buruzko edukietan, zehazki konparagarriak ez baziren ere.

Kontratuak iraupen jakin bat izanen du, obrari lotuta egonen ez dena; hori dela eta, aldaketa bat egin behar izan zen hura obraren egiazko iraupenari egokitzeko.

Gure lanaren egunean, kontratuaren likidazioa egin gabe zegoen. Oro har, sozietateko arduradunak pozik daude jaso duten laguntzarekin.

IV.5.3. Gainerako kontratuak

Baluarteko jarduera arrunterako behar diren gainerako kontratuei buruz –mantentzea, garbiketa, segurtasuna eta abar–, jatetxe eta “cateringari” buruzkoak eta aparkalekuari buruzkoa aipatu behar ditugu laburki, zeren eta haiek baitira sozietateari dirusarrerak emanen dizkietenak.

• Jatetxea.

Jatetxe eta “catering” kontratuaren bitartez, adjudikazio-hartzaileak taberna-kafetegia eta bi jatetxe –bata janari merkearena eta bestea kartarakoa– ustiatuko ditu; aldi berean, bere gain hartzen du “catering” zerbitzua emateko konpromisoa, bai Baluarteko zuzendaritzak antolatutako ekitaldietan, bai hirugarrenek (biltzarrak, konbentzioak...) eraikinaren barruan antolatutakoetan ere.

Kontratuak bost urteko iraupena du, eta beste hiru urtetarako luza daiteke. Kontra-partida gisa, Baluarte fakturazio gordinaren % 1 jasoko du.

• Aparkalekua.

Lehiaketa bidez, aparkalekuaren ustiaketa adjudikatu zen; hona haren klausula nagusiak:

a) Adjudikazio-hartzaileak bere gain hartzen du gutxienez ere 344.061 euroko inbertsioa egiteko konpromisoa.

b) Kontratuaren epea 15 urtekoa da, eta urtez urte luzatu ahal izanen da.

c) Aparkalekua zabalik eta zaindurik egonen da eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan.

d) Adjudikazio-hartzaileak bere gain hartuko ditu aparkalekuaren ustiaketatik eratorritako gastu eta zerga guztiak.

e) Baluarteren aldeko kontraprestazio aldakor bat ezartzen da, fakturazioaren arabera eta progresiboa izanen dena; urteko gutxieneko kuota bat bermatuko da.

Baluartea inauguratu zenetik iragan den denbora laburrak ezinezko egiten digu kontratu horien emaitzak aztertzea.

IV.6. OBREN FINANTZAKETA

Obrak osotara Nafarroako Gobernuak finantzatu ditu, nahiz eta sozietateak dirusarrera batzuk sortu dituen diruzaintzako soberakinetatik lortu dituen etekinen ondorioz, hain zuzen ere Gobernuaren diru-ekarpenak jaso dituenetik obra-ziurtargiriak ordaindu dituen egunetara iragan den denborarengatik.

				(eurotan)
Zuzeneko ordainketak (BEZa bame)				1.554.118
Lehiaketaren deialdia				49.529
Sariak				180.304
Proiektuen erakustaldia				6.704
Proiektua egitearen lansariak				1.317.581
Kapital ekarpenak.				83.117.000
1999. urtea				842.000
2000. urtea				21.383.000
2001. urtea				8.946.000
2002. urtea				26.946.000
2003. urtea				25.000.000
Zergak itzultzea				11.072.135*
Urtea	Sozietateak	BEZa	Guztira	
2000	1.065	777.746	778.811	
2001	2.105	1.692.220	1.694.325	
2002	1.934	3.166.723	3.168.657	
2003		5.430.341	5.430.341	
Baluarteren dirusarrera finantzarioak				1.352.692
2000				39.835
2001				557.859
2002				463.893
2003 (urriaren 30 arte)				291.105
GUZTIRA				97.095.945
GUZTIRA, pezetatan				16.155.405.900

* 2003ko BEZaren itzulketa egiteko zegoen.

Kontuan hartu behar da 2004an inbertsioei dagozkien ordainketa ugari egin direla, 2005ean itzulketa sorraraziko dutenak.

Ordainketa horiez gainera, Nafarroako Gobernuak 2003an, funtzionamendurako, milioi bat euro eman dizkio Baluarte Fundazioari, sinatutako hitzarmenaren indarrez; hitzarmen hori hurrengo epigrafean aztertu dugu.

IV.7. BALUARTE FUNDAZIOARI BURUZ

Baluarteren kultur jarduera bi bidetatik egiten da:

a) Baluarteren bere jarduera egiten duten entitateak. Jarduera horiek puntualak edo zikloetan antolatutako izan daitezke. Halakoetan, Baluarteren bere instalazio eta zerbitzuak alokatzen dizkie entitate horiei.

b) Baluarteren programaturiko jarduera. Lehen esan dugun bezala, horretarako Baluarte Fundazioa eratu zen, eta bera izanen da programazio horren ardura izanen duena. Fundazioak ez du langilerik; hori dela eta, zerbitzu kontratu bat egin da Baluarte Sozietatearekin; kontratu horretan, sozietateak konpromisoa hartzen du kultur jarduerak sustatu, kontratatu eta kudeatzeko zerbitzuak, lokalak kontratatuzko zerbitzuak eta fundazioari laguntzeko zerbitzuak emateko.

Honen truke, fundazioak urteko lansari finko batzuk ordaintzen ditu, hari laguntzeko zerbitzuei eta egindako gastuei (lokalak eta abar) dagozkienak.

Fundazioa finantzatzen da sarreraren salmentatik heldu diren dirusarrerekin, entitate laguntzaileen ekarpenekin (hamar dira, eta bakoitzak 100.000

euro jartzen ditu) eta Nafarroako Gobernuaren ekarpenarekin, 1.000.000 euro, sinaturiko hitzarmenaren arabera egiten dena.

Profesional independenteek 2003ko ekitaldiari buruz (jarduera urriaren 30ean hasi zen) eginiko auditoriaren arabera, hona datu nagusiak:

Gastuak	Euroak	Dirusarrerak	Euroak
Zerbitzuak	1.291.561	Salmentak	418.119
Amortizazioa	83	Dirulaguntzak eta dohaintzak	950.000
Finantzarioak	116	Bestelakoak	3
Atal honetan, guztira	1.291.760		
Soberakin positiboa	76.362		
Guztira	1.368.122	Guztira	1.368.122

2003ko abenduaren 31n, honela zeuden osatuta fundazioaren funts propioak: fundazioaren dotazioa, 30.050 euro, eta ekitaldiko soberakina, 76.362; guztira, beraz, 106.412 euro.

Horrenbestez, Baluarte Fundazioa da egin beharreko programazioa erabakitzen duena; haren kudeaketa sozietatearen eskuetan uzten du. Bestalde, bere gain hartzen du finantziazioaren ardurara, Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren eta babesleek egindako ekarpenen bitartez.

Jarduerak hasi zirenetik iragan den denboraren laburrak ezinezko egiten digu bestelako azterketarik egitea.

Laburbilduz, eta **amaierako ondorio gisa**, hona azpimarratu behar duguna:

Ganbera honi helarazitako neurketaren arabera, Baluarteko eraikinak 38.265 m² ditu, aparkalekuak 26.987 m² eta plaza publikoak 10.362 m²; abian jarri den arte inbertsioak 79.679.309 euro egin ditu (92.094.866 euro, BEZa gehituz gero).

Obra handi eta zail bat da hau, Nafarroako Gobernuak hasitakoa eta enpresa publiko batek egindakoa; enpresa horrek, publizitate eta lehiaketaren printzipioak betetzeko, negoziazioa erabili eta hartutako erabakia justifikatzen du.

Ez Nafarroako Gobernuak, ez sozietateak ere, ez dute berariaz inongo erabakirik hartu inbertitu beharreko kopurua edo prezioari eta epeari buruzko helburu errealek zehazteko; halere, ziurtasun gutxi-askorekin, sozietateko arduradunen adieraz-

penetatik ondoriozta daitezke. Helburu gisa onartzen baditugu arduradunen parlamentu-agerraldian adierazitakoak eta hedabideei aurkeztutako informazioa -78.200.000 €-ko kostua, BEZik gabe, eta 2003ko urrirako bukatu egitea-, esan daiteke helburuak bete egin direla.

Obra loteka egin da, haien ezaugarriak eta zenbatekoak adjudikazioaren aurretik doitu, aurrekoetan antzemandako esperientziaren arabera.

Jabeak adjudikazioak egiteko daukan malgutasun handiagoak, loteka egiten baititu, kontrapisu bat ere izan du: jadanik lanean ari ziren enpresek obren ezagutzaren aldetik eta lanak koordinatzearen ikuspuntutik abantailak izatearen ideari eman zaion garrantzia.

Kontratuak sinatzean exijitu diren bermeak, batez ere epeak betetzearen ikuspuntutik, ez dira partzialki hartu; izan ere, obrak amaitzeko epea aintzat hartu da.

Baluarte 2003ko urriaren 30ean inauguratu zenez, epe laburra iragan da haren jarduerari buruzko balioespen bat egin ahal izateko.

Txosten hau Jesús Muruzábal Lerga auditoreak proposatuta eman da, bera baita lan hau burutzeko erantzukizuna izan duena, behin indarreko legediak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2004ko urriaren 27an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

BALUARTEKO ZUZENDARI-KUDEATZAILE- AK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

Baluarteko zuzendari-kudeatzaileak Comptos Ganberaren behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak

I. Sozietatearen xedeari buruz.

Behin-behineko txostenaren 3. orrialdeko azken lerrokan –4. orrialdeko lehen lerrokan jarraitzen du–, foru gobernuak 2001-12-17an hartutako erabaki bat aipatzen da, non gomendio batzuk egiten zaizkion Baluarte sozietateari, eta azken esaldian aipatzen da Nafarroako Gobernuaren erabaki hori ez zela eskritura publikoan jaso.

Esaldi horrek dioena egia bada ere, esan behar da sozietateko administrazio kontseiluko 2002/01/16ko bileran, aipatu erabakia jaso ondorengo lehenengoan, berariaz aztertu zela erabakia, eta zehazki jaso zela guztia bileraren aktan. Akta horretan esaten den bezala, “erabakia, funtsean, kontseiluak eginiko proposamenaren arabera da.” Izan ere, administrazio kontseiluak, bere aurreko bileran, 2001-10-11koan, eraikin berrirako kudeaketa eredu egokienari buruz eztabaidatu zuen, eta erabaki zuen bere ondorioak Nafarroako Gobernuari proposatzea; Nafarroako Gobernuak, hain zuzen ere, horixe aipatzen du 2001-12-17ko erabakiaren sarreran.

II. Baluartearen kostuaren aurreikuspenari buruz.

Proiektuaz ari dela, IV.1 atalaren bukaeran behin-behineko txostenak hauxe dio: “ezin da proiektu zehatz bati buruz hitz egin obra aztertzerakoan, zeren eta proiektu bat baino gehiago baitago; bestalde, ez Nafarroako Gobernuak, ez sozietateak ez dute berariaz onetsi inbertitu beharreko kopurua.”

Kostuaren eta epearen aurreikuspenari buruzko kopuruak, sozietateko arduradunek 2000-03-15eko prentsaurrekoan jakinarazitakoak, bat datoz San Antonen bastioia eraikinean integratzeko erabakiaren ondoren eginiko lehen estimazioarekin; erabaki hori aste gutxi batzuk lehenago hartu zen. Behin-behineko kopuru horiek 2000-06-09an Parlamentuan eginiko agerraldian berretsi ziren, eta denbora guztian eutsi zitzaizen eraikina inauguratu zen arte.

Idazki hau sinatzen duenak uste du Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak Nafarroako Parlamentuan Hezkuntza eta Kultura Batzordearekin eta Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Batzordearekin izandako agerraldia, 2000-06-09koa, Nafarroako Gobernuak eta sozietateak bere egiten zituzten kostu eta epe helburu-

en agerpen guztiz berariazkoa izan zela. Esan beharra dago kontseilariak eginkizun bikoitza zuela, foru gobernuak kidea eta sozietateko lehen-dakaria zen aldetik, eta ez dirudi huskeria denik gogoraraztea agerraldia berak eskatuta egin zela.

Agerraldi hartako akta irakurrita –bertan parlamentu-taldeetako eledunen hitzaldiak jasota daude–, ondoriozta daiteke, haiek guztiek, zalan-tzarik gabe, 13.000 milioi pezetako kopurua gogoran hartu zutela, aurreikusitako gehieneko kostu gisa. Comptos Ganberako txostena Eledunen Batzarrak eskatuta egin denez, logikoa dirudi pentsatzea eledunek zalantza gutxi izanen dituztela eraikinaren eta haren ekipamenduaren amaierako kostua zein helburu zehatzekin konparatu behar den erabakitzerakoan.

III. Baluartearen amaierako kostuari buruz.

Behin-behineko txosteneko 12. orrialdeko lehen lerrokan adierazita dago 79.679.30,47 euroko guztizko kostuak “ehuneko bikoia baino desbideraketa txikiagoa adierazten duela” “sozietateko arduradunek publikoki onartutako kopuruarekin –78.200.000 euro–” alderatuz gero.

Behin-behineko txosteneko lerrokada beraren hasieran esaten den bezala, guztizko kopuru horrek sozietateak abian jartzeko izan dituen gastuak biltzen ditu. (Gastuek 1.203.144,15 euro egiten dute, aipatu orrialdeko taularen arabera). Idazki hau sinatzen duenaren ustez, gastu horiek ez dira guztizko kostuan sartu behar, zeren eta eraikinaren etorkizuneko ustiaketa prestatzeko jardueri baitagozkie. Besteak beste, Baluarteko jarduerak kudeatzeko behar diren langileak kontratatzeko eta prestatzeko (mantentzea, eragiketak, kultur programazioa, salmentak eta abar) gastuak sartzen dira hor; horrelako gastuak, berriz, balizko eragile baten konturakoak izanen ziren, baldin eta, hasieran pentsatu zen bezala, eraikinaren ustiaketa enpresa pribatu baten eskuetan utzi izan balitz. (Izan ere, ustiaketa Baluarte Sozietatearen esku uzteko aukera ez zen 2000ko abendura arte aintzat hartu). Kopuru horretan eraikina sustatzeko gastuak ere sartzen dira, eta horiek ere balizko eragile pribatu baten konturakoak izanen ziren. Abian jartzeko gastu horiek guztiak ez zaizkio, beraz, sozietateko balantzean eraikinaren kostuari gehitu, baizik eta kudeaketa ezartzeko gastuei: irizpide hori horixe da sozietateko auditoreek onartua da.

Antzeko arrazoiengatik, 79.679.309,47 euroko guztizko kopurutik beste 461.899,30 euro ken daitezke, aseguru dezenalari eta kontrolako entitate teknikoari baitagozkie. Sozietatearen ustez, ustiaketa faseari egotz dakiokoen gastua da, eta haren

lehen hamar urteetan zehar amortiza daiteke; auditoreek irizpide hau ere onartu dute.

Azkenik, idazki hau sinatzen duenak uste du kapital gehikuntzetatik heldu diren diruzaintza soberakinetatik eratorri diren dirusarrera finantzarioak (1.352.692 euro) aktibatu egin beharko lirakeela eta ibilgetu materialaren kostu txikiagoa eragin beharko luketela; sozietateko auditoreek irizpide hori ere onartu dute. Beste arrazoi batzuen artean, ez dirudi logikoa denik eraikina finantzatzeko diruzaintzako puntak eragindako etekinak ez aktibatzea, zeren eta balizko aurkako egoera batean (non kapital gehikuntzak ez ziren iritsiko eraikuntzaren beharrezan finantzarioak garaiz estaltzera) sortutako finantza-gastuak aktibatuko baitziren eraikineko kostu handiagotzat hartuta. (Izan ere, horrela kontabilizatu ziren Nafincori mailegu iragankor baten ondorioz ordaindutako interesak).

Laburbilduz, ondokoa da, idazki hau sinatzen duenaren ustez, Baluartearen eraikuntza eta ekipamendua gauzatzeko jardueren multzoak jabearentzat izan duen guztizko kostu garbia:

Guztizko zenbatekoa, behin-behineko txostenaren arabera	79.679.309,47 €
Ken:	
Abian jartzeko gastuak	(1.203.144,15 €)
Aseguru dozenala eta kontrolako entitate teknikoa	(461.899,30 €)
Diru-sarrera finantzarioak	(1.352.692,00 €)
Jabearentzako guztizko kostu garbia	76.661.574,02 €

Zenbateko horrek, sozietateak onartutako helburuarekin alderatuta –13.000 milioi pezeta (78.131.573,57 €)–, agertzeraren ematen du ez dela kontrako desbideraketarik izan, ehuneko minus bi baino txikiagoa, baizik eta aldeko desbideraketa, ia ehuneko bikoia.

Gehitu daiteke orokorrean, eta oso bereziki obra zibileko kontratu nagusietan (eraikuntzaren eta ekipamenduaren guztizko kostuaren lautik hiru baino gehiago egiten dute), obrak adjudikatu zitzaizkiela jasotako eskaintza guztietako batez bestekoen nabarmen azpitik zeuden eskaintza-egileei. Idazki honen sinatzailearen iritziz, horrek esan nahi du adjudikazioak, oro har, jabearentzat onuragarriak ziren prezioetan egin zirela, kasuan

kasu aplikatzekoak diren “merkatuko” batez bestekoei erreparatuta.

2004ko urriaren 21ean

Zuzendari kudeatzailea: Carlos Luri

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

LEHENENGOA.

Gehitzeko ezer ere ez dugu, zeren eta azaldu egiten baititu txostenean eginiko iruzkinak.

BIGARRENA.

Esan beharra daukagu alegazioan jasotako informazioa txostenean badagoela, eta datu horien gainean ateratzen dira ondorioak. Hala eta guztiz ere, berriz esan behar dugu gure iritziz zenbateko hori egiten duen inbertsio baterako Nafarroako Gobernuaren berariazko erabaki bat behar zela.

HIRUGARRENA.

Gure helburua zen egindako gastu guztiak eta Baluartearen eraikuntzaren finantziarioa Nafarroako herritarrek ulertzeko moduan aurkeztea, zeren eta ez baitugu ahaztu behar haiek ordaindu dutela.

Hori dela eta, ez dugu aztertu nola jaso diren sozietatearen kontuetan; izan ere, txostenean esaten den bezala, kontu horien auditoria urtero egiten du kanpoko enpresa batek, eta Nafarroako Kontu Orokorretan sartzen dira.

Baluarde Sozietateak kontusail horiek kontabilitate-kostu handiagotzat edo txikiagotzat hartzeak ez du eraginik txosteneko ondorio orokorretan.

Hori dela eta, aurkeztutako alegazioak txosteneko ondorioak funtsean aldatzen ez dituzten azalpen edo zabalpen batzuk baizik ez dira, gure ustez.

Iruñean, 2004ko urriaren 27an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	